



# Landare etaazienda gune bilakatu da Tolosa berriro

**ZUHAITZ EGUNA** ▶ Zuhaixkak,  
loreak, zuhaitz-landareak... ikus  
zitezkeen atzo Triangulo plazan

**BIGA ENKANTEA** ▶ 45etik 40 buru  
saldu zituzten; garestiena, 1.620  
eurotan: Pirenaika arrazakoa ▶ 6



Askotariko landareak eta zuhaixkak ikus zitezkeen atzo goizean Trianguloan, Zuhaitz Egunaren harira egindako azokan. JAIONE ASTIBIA

## ALEGIA ▶

### Aldarriak eta festa gazteen egunean

Eskualdeko gazte  
asanbladek ospatu  
dute Gazte Eguna ▶ 7

### ANGEL MARTINEZ ▶ HARIZPE ELKARTEA



LEIRE MONTES

«Gizarteak  
ez ditu orohar  
adinekoak  
baztertzen»

Zahartzarora bigarren  
hautzarora dela uste  
du lehendakariak ▶ 23

Behera galtzak!!!

Garbera Merkatal Gunea  
Donostia

NI EZ NAIZ  
INOZOA

Media Markt

HITZA-KO  
JERTSE BERRIA  
ESKURA

Gertuen duzun  
egoitzan  
lor dezakezu

Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

UZTURRETIK ▶  
KRISTINA URRUTIAElurra,  
itsasoa,  
onttoak

Azken egunotan hainbeste ikusi dugun elurra denen ahotan dabilen kontua da. Onerako eta txarrerako, gustuko izan edo ez, elurra etxe atarian izan dugu Euskal Herri osoan. Ez alperrik, aurtengo neguan jada laugarren elurtea egin digu eta. Aste honetan bertan entzun diot Arantxa Iturberi «maindire zuriak diruditen mendiak ikusten ohitu garela», eta ez du arrazoit txarra bota. Gipuzkoa alde horretan ere leku frankotan ikusi baita elurra. Bilbon bizi den lagun batek, berriz, harriritua esan zidan Bizkaiko hiriburuan nola bota zuen elurra eta nola izoztu zituen Bilboko kaleak. Halako izotz plakarik sekula ikusi gabe omen zegoen. Atera kontuak zenbatekoa egin duen.

Batek baino gehiagok gozatu du bada elurrarekin aurtengoan. Hala irakurri dut egunotan egunkari batean: leihotik begira jarri eta elurra mara-mara ari duela ikuste hutsak erlaxatu egiten duela; hain estresatuta bizi garen gizarte honetan oso esker onekoa omen da elurrak ekaritzen duen pake eta lasaitasuna. Baina esaerak dioten bezala, ezin ba guztion nahiak asetu eta egunkaria irakurri nuenean baserriarrez oroitu nintzen, baita eskolako irakasleez ere edo garraraoan herri batetik bestera partiketan dabiltzanez. Zer esango ote dute elurrari begira egoteak dakarren lasaitasunaz, beraien lana ezin badute burutu?

Ez zaituztet kezkatu nahi baina gaur-biharretan ere fronte hotza omen dator. Orduan ere izanen dira batzuen eta besteen marmarrak... Ez da ba oso ohikoa negu berean bost elurte handi egitea, baina hala gertatuko omen da. Klima aldaketa dela eta izanen da akaso, hori ere badator etal Elurrari ezik, beste fenomeno askori eraginien dion klima aldaketa. Klimatologia adituak itsasoaz ere mintzatu baitira zera esanez: hemendik urte batzuetara itsasoak metro batzuk gora egingen duela, Euskal Herriko hondartzak irensteraino. Marxa honetan Nafarroaraino iritsiko da aurki! Leitzarrok ez dugu, beraz, Gipuzkoara hondartza bila joan beharrik izanen, eta onttoak bere lekutik mugituko ez direnez, Leitzan onttoak eta hondartza, alajain!

## WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Inauteriak: zer  
duzu esateko?

Giroa oso ona izan zen, eguraldiak ere lagundu zuelako. Baina tabernetako musikarekin aspertuta: Bisbal eta antzekoak gehiegi entzuten dira. Eta ez Inauterietan bakarrik, edozein asteburutan ere bai. Kanpotarrak moztrotuta etor daitezela!

TOLOSAR BAT ▶

*Tolosar batek* idatzi duenarenkin ados nago: giro ona eta musika, taberna batzuetan behintzat, ez hain ona. Baina, horrez gain, esan nahi nuen erakusleho batzuk ikusi nituela haultsita, eta gutxienez, errespetu falta dagoela horrelako ekintzetan. Ez naiz moralista jarriko, baina ea jendea lasaitzen den eta festak ospatzen ikasten dugun.

INAXIO ▶

Nik neronek ederki pasatu dut, baina urtero bezala, amorrarazita gauza beragatik! Ze puñetagatik karrozetan erda-

ra da nagusi? Alkateari dei egiten diot, bere esku dagoelako, hori aldatzeko ahal duen guztia egitea! Inauterietan moztrotu gaitezen euskaraz!

KARROZA ERDALDUNAK ▶

Zer irudituko litzaizuke norbait kexatuko balitz honetan edo bestean euskara nagusi delako? Utz diezaiogun bakoitzari nahi duen hizkuntzan komunikatzen. Karrozetan gaztelaraz idatzeko erabakia karrozagileen erabaki pertsonala da. Utz dezagun bakean bakean dagoena.

AGIRRE ▶

Agirre jaun/anderea: Bakean diozu? Utz nazatela ni bakean atzerriko hizkuntza horrekin dabiltzanak! Aizu, alkatearen zeregina da euskara bultzatzea eta guztion betebeharrak hitz egitea: betebeharrak eta eskubideak! Hain gaizki iruditzen zaizu, edo? Zu bezalako euskaldunekin iritsiko da euskara urrutira, horratio! Gauzak ez dira hain sinpleak, egin dezala bakoitzak nahi duena, hori da jarraitarrik

errazena! Gora Euskal Herri euskalduna!

BAKEAN? ▶

Giroa, kristorena! Baina lana egin dugunontzat inbidia pixka bat. Beno ahal izan dugun moduan ospatu ditugu geuk ere. Kenduko nukeen bakarra, hor alukerietan ibili den jendea, autoak apurto TAOko makinak izorratu... Horiek ez dira Inauteriak!

ERLANTZ ▶

Kaixo! Ba niri iruditzen zait beste urtetan baino jende gehiago egon dela aurten eta parrandan tabernetan-eta ibiltzeko oso gaizki zegoela. Azkenarako nazkatu egiten zen. Baina bestela oso ondo. Aupa Tolosako Inauteriak!

LARRAITZ ▶

Gernikako Arbolako taberna batean makina txanponjalea lapurto, Korreo kaleko arropa denda batean eta beste hainbat tokitan erakuslehoak haultsi, Tonto kaleko TAO ordaintzeko makina porlanez moztrotu, Eroskiko karroak ibaian,

botilak txikitu, pixa non-nahi egin, tinbreak apurto... Txiki-ziorik egin gabeko festarik ez al dakigu egiten? Disfrutatzeok gauzak puskatu egin behar al dira? Horrekin batera garbiketa zerbitzuek egindako lana txalotu nahi dut. Lan izugarria egin dute egunero kaleak eta plazak txukun uzten.

MIKELTXO ▶

Sekulako giroa izan da txosnetan. Kontzertu eta ekitaldi ugari. Jende mordoia. Leku estalia eta goxoa. Eguraldiak lagundu egin du gainera. Talde desberdinak elkarlanean, tartean etorkinen elkarteak. Hasieran, artxioboaren atzealde festagunetik urrutituz zegoela uste genuen, baina ohitzea da kontua. Beste urteetarako sinatuko luke leku bera. Gazte jendeak eskertuko luke. Bestalde, txalo handi mordoia Mularboren eta bere lagunen karroza-konpartsari eta Bonbereneakoko txarangari —berria, ugaria, one-netakoa—. Kristorenak biak. Eredua ezertan parte ez duten gazte pasota askorentzat.

AXUN ▶

## ANGEL MARTINEZ ▶ HARIZPE ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Zahartzarora iritsi  
nahi baduzu, gazte  
jendearekin ibili»

Harizpe elkarteko lehendakari izendatu berri dute Angel Martinez; «jendea laguntzeko» lanean jarraitu nahi du, eta «orain bezain osasuntsu eta pozik luzaroan bizi»

## LEIRE MONTES

Asteartero egiten ohi duten zuzendaritza batzordearen bileran harrapatu zuen HITZAK Angel Martinez Harizpe jubilatua eta pentasidunaren elkarteko lehendakari berria, eta hurrengo egunerako egin zuten hitzordua. Goiz hartan gainezka zen elkarteak: atea ireki baino lehen ilara luzea zen zain, Kanariar Uhartetarako bidaiarako lekua lehenbailehen hartzeko. Gela lasaia gozatu egin behar izan zuten solasaldia.

**Zer da lehendakari batek egin beharreko lehen gauza?** Lan egiteko gogoia izan. Gero, zuzendaritza batzordea eratu, horren berri eman erakundeak, eta lanean hasi.

**Urtetik urtera bazkide gehiago daude Harizpen. Adineko gehiago dago, ala aktiboagoak dira?**

Biak. Zaharrenak hil egiten dira, eta aurretik erretiratutako gero eta jende gehiago egiten da bazkide. Emakumeen kopurua ere handitzen doa: gero eta alargun gehiago dago; hobeto zaintzen zarete, nonbait. Egun 1.650en bueltan gara, %60 gizonetako eta %40 emakumezko.

**Harizpe elkarte bizia dela dio-te.** Aurreko ildoarekin jarraitu nahi dugu, eta denetik antolatzen saiatuko gara. Oporraldiak antolatzen ditugu —Benidorm, Lloret de Mar, Kanariar Uhartek...—, eguneko irteerak —Urkiola, San Fermin, Ira-

txe, Lizarra...—, eta igande goizetako txangoak. Hamabostean behin dantzaldia izaten dugu elkarteak, bingoa ostegunetan, ostiraletan eta larunbatean, karta jokoak... Udaberriaren eta udazkenean, adibidez, Mahai eta Mugimendu Jokoen Txapelketa antolatzen dugu. Sanjoanetan toka txapelketa antolatzen dugu, eta egun Eskualdeko Jokoa murgilduta gaude; lehen faseko txapelduan gara, gainera. Udaren jubilatuen jaia izaten dugu, eta bazkarian elkarteko veteranoen omentzen ditugu. Eguberrietan gabonsariak ematen dizkiegu bazkideei, *lunch*-a egiten dugu guztiontzat, eta Errege Egunean oparien banaketa eta txokolada egiten dugu.

Pilota partidetak sarrerak ematen dizkigute, hitzaldiak ere badaude...

**Ezer falta al zaio elkarteari?** Lekua. Gauza gehiago egingo genituzke lekua izanez gero. Udalarik gelak klimatizatzeok eskaria egin nahi diogu, udan beroa jasangaitza baita. Dena den, Udalariekin dugun harremana oso ona dela esan behar dut.

**Zer da adinekoek gehien eskatzen dutena?**

Bidaiak, dudarik gabe. Ea aurtengo gehiago antolatzea lortzen dugun. Bangoan ere gozatu egiten dute; gela erruz betetzen da. Eta karta jokoa antolatzea ere asko gustatzen zaie.

**Zer aurkitzen dute Harizpen?**

Harizpe familia handi bat bezalakoa da. Askok egun guztia pasatzen dute hemen. Adiskideetasuna, erosotasuna, giro ona, denbora-pasa, elkartu eta elkarbizi... Dena ematen die elkarteak.

**Gizarteak aintzat hartzen al ditu adinekoak?**

Gazteen artean denetik dago. Baina, orokorrean, ez dute uste gizarteak adinekoak baztertzuten dituenik.

**Gerontologiakoaren itxieraren aurrean, zer?**

Ez da bidezkoa. Nire eta elkartearen izenean deialdi eta mobilizazio guztiekin bat egiten ari naiz. Jende asko etxerik



**IDOIA ELOSEGI**  
ESKULTURGILEA

«Hiru dimentsiotan hobeto espresatzen naiz; gustukoago dut eskultura pintura baino»



**GARI URANGA**  
FUTBOLARIA

«Realera itzultzeaz ez naiz inoiz damutu; nire taldea da eta harro nago hemen egoteaz»

GUTUN@K ▶ 

## Anoetako Udala eta ingurumena

Duela urte eta erdi, Fidel Azpiroz buru duen EAJ-EA taldeak Anoetarrok Auzolanean plataformari dagozkion lau zinegotziak lapurtu zitkien. Horregatik, Anoetarrok Auzolanean herri plataforma egungo Anoetako Udalaren erabakiguneetatik guztiz kanpo dagoen arren, ondoko hau, 409 herritarrek Anoetarrok Auzolanean herri plataformari emandako konfiantzari erantzunez, Udala ingurumenaren arloan egiten ari denaren balorazioa da: Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua, hondakinen eta erraustegien auzia.

Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren inguruan nozitzen ari garen erakundeen desinformazioan eta AHTren egitasmoak eragingo lituzkeen ondorioengatik, Udalak erantzukizun handia du. Horregatik, Udalak herriko naturan eta anoetarrok ongizatean eragingo lituzkeen ondorio hain garrantzitsuen informazioa bildu,

zabaldu eta eztabaida bultzatu beharko luke. Ondoren soilik erabakia hartu beharko litzateke horrelako tamaina handiko AHTren egitasmoaren aurrean. Udalak, informazio eta eztabaida prozesua eman arte, proiektua gelditzeko proiektua gelditzeko bitarteko guztiak jarri beharko litzuzke.

Ez al da hau guztiz demokratikoa? Hortaz, nola justifika dezakete, AHT gelditzeko hainbat arlotan aurrera emandako borroka trinkoa eta arrazoitua kontuan hartuta, proiektuaren aurrean eurek erakusten duten isiltasuna eta utzikeria? Utzikeria horren bidez, Anoetako Udala, Eusko Jaurilaritzaren eta Espainiako Sustapen Ministerioaren inposatze-egitasmoaren laguntzaile bihurtzen da. Guztiagatik, Udalak, AHTren egitasmoak herriaren eragingo duen txikizioaren alde egiten du. Gainera, proiektua gelditzeko lanean ari den Anoetako AHT Gelditu! Elkarlana taldearen eta baserritarren iritzia baztertzeko ari da. Bestalde, ohartarazi nahi dugu AHT gelditzearen aldeko borrokan

momentu erabakigarrian gaudela, eta, beraz, parte-hartze guztiak dira lagungarriak eta beharrezkoak. Zure parte-hartzea espero dugu!

Hondakinen eta erraustegien auziaren baitan, kaleak garbi mantentzea eta edukiontzia jartzea Udalaren ardura da. Baina, badiu egiteko gehiagore ere. Udalak hondakinen kudeaketa egokia eta integrala egin behar du. Hondakinen tratamendua arazo larria da berez, eta, gainera, gure gehiegizko kontsumoak natur baliabideen agortzea eta kutsadura handiagotzea suposatzen du. Euskaldunen kontsumoa mundu osoak egingo balu beste bi planeta eta erdi beharko genituzke. Beraz, Udalak Naturaren babeserako eta kontserbaziorako beharrezkoa den zabor gutxiago sortzea, erabiltzen ditugun baliabideak berrerabiltzea eta birziklatzea bultzatu eta erraustegien aurka egin behar du.

**INAKI ITURRIOZ ETA MIKEL LARRION,**  
ANOETARROK AUZOLANEAN HERRI  
PLATAFORMAREN INGURUMEN  
BATZORDEAREN IZENEAN ▶ ANOETA

## Osakidetzako grebraz

Idatzi honen bitartez, behean sinatzen dugunok, 2005eko otsailaren 24ean Beasaingo Anbulategian lanean ari ginen langileok, jasan behar izan dugun indarkeria fisiko nahiz ahozkoa salatu nahi dugu eta egoera gogor horren aurrean gure ikuspegia eman nahi dugu.

Greba deialdiarekin bat egin ez dugunok eta oinarriko zerbitzuak betetzera etorri garenok, ELA, SATSE (erizainen sindikatu) eta SME-ko (medikuena) pikteteen irain, garraxi, bultzada, mehatxu eta era guztietako probokazioak jasan ditugu. Jarrera berdina mantendu dute pazienteekiko, beraien sarrera eragotzi dutenean.

Sindikatu hauen *ordezkari* izan duten jarrera guztiz salagarria iruditzen bazaigu ere, are eta lotsagarriagoa iruditzen zaigu gure lankide eta Anbulategiko arduradunek erakutsi duten utzikeria, pasibotasuna eta bere kideekiko laguntasun eza.

**MARI PAZ YOLDI ETA OSAKIDETZAKO**  
BESTE 8 LANGILE ▶ TOLOSALDEA



LEIRE MONTES

## PERTSONALA ▶

▶ Acedillo herrian (Burgos, Espainia) jaioa ▶ 1936ko urtarrilaren 22an ▶ 1959. urtean etorri zen Tolosara, lan bila: «Hiru pezetarekin hasi nuen bizitza herri honetan: 100 pezetarekin atera nintzen ebetxi, eta 97 gastatu behar izan nituen trenean!» ▶ San Jose paper-fabrikari eta Kasinoan kamarero egin zuen lan ▶ Burgostarra eta tolosarra sentitzen da: «Tolosak eman dit dudana guztia»

Urtarrilaren 15eko batzar orokorrean aukeratu zuten Harizpeko lehendakari, ia aho batez. Jose Antonio Tutorren lekukoa hartu du, zuzendaritza batzorde beretsuarekin. 2000. urtean iritsi zen elkartera, eta bi urtez izan da lehendakariorde. Eskualdeko Batzordearen idazkaria ere bada. Paseatzea, kartetan aritzea eta jendearekin egotea du gustuko.

## ELKARTEA

«Familia handi bat da: adiskidetasuna, erosotasuna, giro ona, denbora-pasa, elkartu eta elkarbizi...»



gabe geldituko da. Ezin dugu eserita geratu, borrokatu egin behar dugu.

**Egia al da zahartzarora bigarren haurtzarora dela?**

Dudarik ez. Haurrak bezala, arreta bereganatzea bilatzen duzu, eta mimo gehiago behar dituzu; maitasun eske ari zara etengabe.

**Zaharra sentitzen zara, ala ez hain gazte?**

Oso gazte sentitzen naiz ni. Zahartzarora iritsi nahi baduzu, gazte jendearekin ibili. Horixe

egin dut nik bizitza osoan: hara eta hona ibili naiz, eta jende asko eta asko ezagutu dut. Oso aberasgarria da hori, eta bizirik mantentzen zaitu.

**Zeintzuk dira zure ilusioak?**

Elkartean, ilusioa ez galdu, eta jendea pozik ikusteko lanean jarraitu. Lan gogorra da askotan, buruhausteak sortzen dizkit; baina gustatzen zait, eta honetan jarraitu nahi dut. Bizitzan, jendea laguntzen jarraitu, eta orain bezain osasuntsu eta pozik bizi, luzaroan.

OSASUNA

Gutziz osasuntsu egoteko, oinak ere «ondo zaindu» behar ditugula gogoan hartu

Oinetan arazoak izanzen gero beharrezkoa da podologoarengana jotzea; Hitzak Pausoka zentroko Arantxa Lizarraldekin eta Oroitz Altunarekin hitz egin du

EDURNE AYUSO



Pausoka zentroko Arantxa Lizarralde (ezkerretara) eta Oroitz Altuna (eskuinetara) podologoak. EDURNE AYUSO

Gizakiok hataz-behate, gure bizitzan zehar ehun eta hogei mila kilometro egiten omen ditugu oinetan. Oinak zaindu behar ditugu... Oinak zaindu behar ditugu...

ma ematen dugu, baita, ez da oinetara iristen. Azkazarak ondo mozte ere kontuan izan behar da, ez dira borobileen moztu behar zuzen batak. Zuzen mozte ez baditugu oharagatik gogortasunak, azkazarak, karraioak, hongoak eta tratatzen dira. Ortopodologiak berri, oin-ouskarriak edo plimnik lantzen ditu.

rietan ibiltzea da oso onuragarria. Diabetea dutenak arreta bereziki eskaintzen behar omen diete oinei. Diabetikoek, zenbat kasutan, oinetan sentortasuna galtzen dute eta gertatu liteke zauritzen bai izatea eta ez oharatzea. Horregatik, gomendagarria da noizean behin gure oinak ondo aztertzea. Gainera, ez da ahaztu behar diabetea duten gaioek gehiago kostatzen zaiela zauriak sendatzea.

bidetz, korrika egiteko egokiak zaituzte. Korrika egiteko egokiak izan behar da, ordea, zapatilek gisago identifikatzen dituela eta errazago gasetzen direla. Horregatik, zapatilek maiz aldatzea komeni da. Udan oihaldekoak eta neguan larruzkoak dira egokiak. Zapatei dagokionez, egokiak larruzkoak dira. Oin zaharrek diuresisarekin egokiagoak omen dira sokadun zapatak oinetan neurria egokitzeko errazagoak direlako.

BINAICI B. Hertz-klínika. Arrostegia 6 Bis - 1.00a. Tel: 943 69 29 99. TOLOSA

BEREZITASUNAK: Inplantazioak, ortodontikako zubi estetikoko finkoak, Asken teknologikoki aparatuz mugikortasun, Erizketa, Oin-ouskarriak. ERNIBEAK: Hasi gutxienezko inplante funtzionalak, nazko korrikalariek, Adinaren hutsuneak, ortodontikoki.

HORTZ-KLINIKA. Elisabet Aguirrebengoa. Bixente Ayerdi. MEDIKU ESTOMATOLOGOAK. Kalg. 286/299. Kode Nagusia, 1 - 20150 BILABONA - Tel: 943 69 17 19

ERNO BEA Hertz-Aginen Klinika. Erno Beaa, 2. Bilabona. Tel: 943 69 01 22. ODONTOLOGA

Carolina Morillas Rojo ODONTOLOGA. Erno Beaa, 2. Bilabona. Tel: 943 69 01 22.

Oroitx Altuna Zubeldia Arantxa Lizarralde Gorostegi Kolabe 146/144. PAUSOKA Podologia zentroa. TOLOSA. Burra, 106 beheko. Tel: 943 69 181

ARANTXA LIZARRALDE. «Hondartzan ortozik ibiltzea oso ona da espoliantea delako; zirkuazioarentzako ere ona da itsasoko ura». OROITZ ALTUNA. «Gauza bakotzak bere oinetako eskaltzen du, adibidez, korrika egiteko egokiak zaituzte dira».

oso alhas izan behar, behar izaten zaituzte kaltegarria izan litekeela, pisu gutxia aurrera erortzen da eta behar bezala sargatu egiten dira. Takoiarentzat neurri egokiak dira eta hiru zentimetrokoa da. Platiformadun oinetako erosi nahi izanez gero, ez da komeni oso zurrunka izatea, oinak mugikortasuna izan behar du. Oinetako aukerazterakoan modak eragina duela uka ezin da. Lizarralde eta Altunak aholkuak ematen dituzte, oinadaren kontra ezin dugu ezer egiti. Oroitz Altunaren hitzetan, «apain egiteko sufrutu egiti behar dela esan zuenik bazekien zerbait». Gaur egun moda-modan daude murrera esan duten zapatak erabiltzea, bada podologoek esan digutenez, hauek ez dira oinetako egokiak. Behar bezala esatu egiten baituzte. Oinetako erosteko unerik egokiena lurtuetan da. Egun osoan ibili otean oinetarik aproposenak erostea errazagoa da, oinaren benetako neurria ordutan atzematen baita. Gurean erostez gero, litelakoa da txikiegiak erostea. Edozein kasutan ere, behar bezala mugitzea adinako lekua izan behar dute zapatek, ez dute txikiak izan behar. Adinekoek oin txiki izatea oin poltsa izatearen parekotasun omen dute eta horregatik, askotan oinetako txikiak erabiltzen dituzte.

agndu. Nekane Aizpuru - Kol. 286/308. El Carretero - Kol. 286/312. • Errehabilitazio funtzionala • Elektroterapia • Masaje terapeutikoa • Drainatze linatikoa. Eltxerainoko zerbitzua. Tel: 943 69 31 13. Eroska 8, beheko - BILABONA



Carolina Morillas, Villabonako Ernioeba Hertz Klinikako odontologia. EDURNE AYUSO

Aho osasunaz Villabonako Ernioeba Hertz Klinikako Carolina Morillas odontologoak ahoa nola zaindu azaldu dio HIZARI

Denberrari biasta egitea ez da inoren gustukoa, ez dugutukatu. Ezin ukatuko dugu, ordea, dentistarengana joatea beharrezkoa denik. Aho osasunarekin eta irribarre poltsa izan nahi duenak, behar bezala, beharrezkoa du odontologo baten eskutian jarria. Hiza Villabonako Ernioeba Hertz Klinikatik izan da eta Carolina Morillas azaldu dio egunkariari aho nola zaindu behar den. Morillasen aburuz, «jendea orain lehen baino kontzientzia-ituago dago, baita oraindik bide luzea dago egiteko». Jendea balezte ere mugatirik, hortzak mugitu zainduko edota aho-olan edo entzietan odola sortzen zailaioa joaten da odontologoarengana. Hala ere, estetikak garrantzia handia duen garaia diru hauek eta hort dentistaren kontsultan ere nabaritzen da Morillasen azaldu duenez, «jendeak gero eta

garrantzia handiago ematen dio itxurari. Irribarre poltsa bidez alerzioa ematen du». Bestalde, gaur egun erostekoak, sarna biltzen du. Gara batean, hortz oso gutxiarekin jatera ohi zuten ziren, hortzak atzeratze joera baitzuten. Gaur egun, ordea, odontologoek hortzak eta haginak eusterean aldeko apustu egiten dute. Adituaren ustez, «prebentzioa eta kontrola da garrantzitsua. Dentistarengana joanago joanzen gero, arazoak elditea errazagoa da. Asko itxaron ezkerre ondorioak larriagoak dira». Aho osasunaz hitz egitekoan ez da aho-ola edo entzia ahaztu behar. Entzietan gaioztasuna oso kaltegarria da, ez da gaitasun mingarrira, eta ohar-terako, askotan berandu izaten da. Hortzak osasuntsu egoteko beharrezkoa da horien euskarri den aho-ola ere osasuntsu egotea. Hortzora aukeratzeko ez da lan erraza, gaur egun, merkatuan denarik aurki baitaiteke Morillasen ustez, etxe komertzial handien hortzozak «orokorrean onak dira, eta baita oso antzekoak ere. Hala eta guztiz ere, «komertzialgarria da noizean behin markaz egitea, hala, ahoan ditugun mikrobioak errazago desagertuko direlako». Ernioeba Hertz Klinikatik aho zainteko beharrezko zerbitzu gunitza eskura liteke, ez izan beharrik dentistari.

xotasun mingarrira, eta ohar-terako, askotan berandu izaten da. Hortzak osasuntsu egoteko beharrezkoa da horien euskarri den aho-ola ere osasuntsu egotea. Hortzora aukeratzeko ez da lan erraza, gaur egun, merkatuan denarik aurki baitaiteke Morillasen ustez, etxe komertzial handien hortzozak «orokorrean onak dira, eta baita oso antzekoak ere. Hala eta guztiz ere, «komertzialgarria da noizean behin markaz egitea, hala, ahoan ditugun mikrobioak errazago desagertuko direlako». Ernioeba Hertz Klinikatik aho zainteko beharrezko zerbitzu gunitza eskura liteke, ez izan beharrik dentistari.

AHO OSASUNA • AHOA ETA AHO-OIA. Villabonako Ernioeba Hertz Klinikako bursak, Carolina Morillas odontologoak, ahoa eta aho-ola edo entzietako ondo zainteko gomendio orokor batzuk eman dizkio HIZARI. Dentista. Gubiernez urtean behin dentistarengana joan behar da, «jendeak uste du behar du, dentistak ez duela denigeri mina eragin behar. Bestalde, ahoan arazoak eta somatuz gero berehala joan behar da. Garrantzitsua ohera joan aurretik garbitzea da. Hartzorea. Merkatuan daudenak, orhar, onak dira. Dena den, komertzialgarria da noizean behin markaz aldatzea. Galtzarrik. Komertzialgarria da hortzak, zelaio barietate garbitzea. Ez da beharrezkoa egunero erabiltzea; nahikoa da astean bizi-pahiru aldiz erabiltzea. Ahoan arazo jakin bat izanez gero, lagungarria izan liteke haidarokoi aproposak diren likidoekin aho garbitzea, ahoiko infekzioen kasuan, adibidez. Dieta. Azukre gutxi duten elikagaiak jatea komeni da. Gooziak jatekotan hobe azukreki gabekoak jatea, kalte gubioago egiten diote eta ahoari. Azukredunak jenez gero, apurka jatea baino hobe da denari jarraian jatea, eta, ondoren, hortzak ongi garbitzea. Goozika are eta itasokorrago izan, are eta kaltegarriagoa da horien eragina, beraz, hobe horiek ez jatea. Fluora. Haurren kasuan gomendagarria da aho fluorekin garbitzea. Fluorak, hortzak eta haginak indarrez garbitzea, hortzen hazkunde berrantzen du.

gure bizitzako 25 ASTE SANTURIK onena. Madrid 245, Galicia 280, Lisboa 275, Italia 350, Paris 259, Bretona-Normandia 315. P. Gorostegi 40, 1-B. TOLOSA. Tel: 943 69 39 33. • ODONTOLOGIA OKORREAN • PROFESIAK • INPLANTEAK. Sanz. HORTZ-KLINIKA. Fco. Javier Sanz Céspedes doktorea • PROFESIAK • INPLANTEAK. URBAL. Noguera, 18. 20400 TOLOSA. Tel: 943 01 68 66. Noguera, 31. 20160 LASKARTE. Tel: 943 37 63 36. EROSKI Moies. Gudarri, 4 - 1. lek. • TOLOSA • Tfnoa: 943 606 906 • Mng. 656 721 823.

GIZARTEA ▶

# Landareak eta aziendak ikusiz eta erosiz

Giro ederrean tenoreari dagokionez, aldarioetarako prestatu da jendea

JAIONE ASTIBIA

**T**olosa azoka handi bilakatu zen atzokoan. Osagai guztien jabe zen azoka: produktuen erakusketa, salmenta, jende andanaren joan-etorria, tratuak, marmarra... Eta gainera, aurtengo otsail honetarako bitxi ere badena jada, eguraldi eguzkitsua berak ere alaitasunez jantzi zuen herria.

Larunbateroko azoka aitzaki, egun berezia izan zen atzokoan, izan ere, Trianguloan X. Zuhaitz Eguna burutu zuten eta III. Biga Enkantea, Ferialekuan. Horrekin lotu daitekeela, Zuloaga Txikiko ingurumen eskola-koak ere, Zabalarreta aldean, zuhaitzen eta izadiaren inguruko hainbat ekintza burutu zituzten. Horrela bada, bazen zer ikusi eta zer egin franko herriko bazterretan.

Trianguloak mintegi handi bat zirudien, edonora begiratuta ere zuhaitz-landareak, zuhaixkak, loreak... ikusten ziren eta. Larunbateroko azokan horretan aritzen diren mintegizaleez gain, beste hainbat eta

hainbat landare-saltzailek ere jarri zuten beren postua. Batzuek fruitarbolak eta baso-landareak zituzten salgai. Espezie askotakoak eta bakoitzetik barietate desberdinak ere, ezin konta ahala zenbait kasutan: haritzak, pagoak, pinuak, izaiak... baso-landaretan; hara-nondoak, muxikondoak, gerrezioak, intxaurreondoak, kiwi-landareak, udareondoak... eta sagarrondoak, berriz, Andra Mari sagarra, Aragoiko sagarra, Errege-sagar grisa, Errezil-sagarrak, Kanpandoia, Urtebi-txiki eta Urtebi-handi sagarra, Patzulo, Santio-gorri, Gezamina, Mozolo, Sagar Urdina... Hango aniztasunaren eredu besterik ez dira aitatutako horiek guztiak. Han gustuko landareri topatu ez zuenak, lan zaila dauka, inondik ere.

Landare apaingarriak saltzen zituzten postuak ere baziren, bestalde. Hosto iraunkorreko eta kolore biziko loreduen zuhaixkak eta landareak ikus zitezkeen; laranjak eta limoiak zintzilik ziztela ere bai, beste batzuk.

Jende asko ibili zen goiz guz-



Autobideko soinuari hesia egiten lagundu zuten gaztetxoek. J. ASTIBIA

tian zehar hau ikusi, hura erosi, honetaz galdetu, hartaz ikasi... Larunbatero lanean hortxe aritzen direnetako mintegizale batek zioenez, beraiek ere gustura zeuden: «Gaurko salmenta oso ondo joan da. Jendea egun honetarako erreserbatzen da eta asko saltzen da, eta gustura gaude. Baina, akaso, larunbatero etortzen garenontzat ez da oso ona. Azkenik egun honen zain egoten baikara gu ere». Bestalde, aurreko asteetako elurteek ere eragina izan omen dute. «Azoka atzeratu egin da eta aldarioak egiteko berandutzen ere ari zela-eta kezkatuta geunduen», argitu zigun.

Ikustekoa zen ere plazaren erdian Mendikoi Fraisoroko Nekazaritza Eskolak erakusgai jarri zuen enborra: zerrategietan egiten duten zatiketaren isla. Eskolan bertan asmatutako etxeetarako *baratzak*: argazki eta azienda ezberdinen anatomia erakusketa; 3-D baso simulatzailearen berri eta ikastaroen iragarpenak... Hurbiltzen zen jendearen galderak erantzuteko prest ziren bertako arduradunak ere.

## Zabalarretan ere bai

Giro ezin hobea, beraz, eta zuhaitzez zertxobait ikasteko aukera izan zen atzokoan.

Ildo beretik ibili ziren Zabalarretan bildu ziren 117 gaztetxoak ere. Joko desberdinen bi-

dez, landareen usainak ezagutu, ukimena landu, erromero-alkohola egin, zuhaitzen zatiek bururatuazten zizkien hitze-kin olerkiak asmatu eta beste-lako jokuak egin ondoren, Izaskun auzoaren atzealdean autobiarri hesi akustikoa egiten lagundu zuten: arteak, mimosak, kainaberak, ginkoak... Hainbat motatako zuhaixkak aldatu ahal izan zituzten gaztetxoek.

Atzokoan Tolosako Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako eta Laskorain ikastolako ikasleak izan ziren moduan, gainerako txanda datorren aste honetan izanen omen dela adierazi dute antolatzaileek.

## Enkante baliotsua

Eta Tolosako atzoko zirkuitoarekin bukatzeko, ezin daiteke aitatu gabe utzi Ferialekuan burutu zuten enkantea. Izan ere, Frisoi, Pirenaika, Blonda eta Limousin arrazako 45 abelburu ziren enkanteerako eramanak, 13 baserriak. Azkenik, 40 buru izan ziren salduak. Antolatzaileen esanetan, «merkatuko prezioan» saldu ere. Garestien saldu zen behia Pirenaika arrazako bat izan omen zen, 1.620 eurotan. Gehienak irteerako prezioan saldu baziren ere, ale batzuekin puja dezentekoa izan omen zen. Erosalarrek gustura eta saltzaileak ere bai.

AZOKA ▶

## Azoka bizia izan zen atzokoan Tolosan

Edizio bereziak izaki, bisitari eta erosle asko gerturatu ziren Zerkausira ere

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka oso arrakastatsua izan zen. X. Zuhaitz Egunak eta III. Biga Enkanteak erosle eta bisitari asko erakarri zituzten Tolosara, eta goizeko azkeneko orduetan, salmentaren kopurua ikusi besterik ez zen egin behar, hori egiaztatzeko.

Triangulo plazan mota desberdinetako frutarbola asko izan ziren, eta espezie bakoitzeko, barietate ugari ere bai.

Azoka bereziaren bizia Zerkausiraino luzatu zen, eta nahiz eta joan den asteko hortzen eragina nabarmendu barazki batzuetan, eskaintza zabala izan zen. Izan zirenen artean, azaloreak, azak, bruselazak, porruak, azenarioak, eskarolak, letxuak, kalabazak eta babarrunak nabarmendu ditzakegu.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Insignis pinua	0,17	-
Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Ziklamena	3,50	6,00
Pensamientoa	1,00	-
Konifera	6,00	-

## Bertako produktuak

Udare sagarra	1,50	-
Ziazarba	1,00	-
Kalabaza	1,50	-
Patata	0,66	1,00
Erremolatxa	1,50	2,00
Azalorea	1,00	-

## Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurrea	4,00	6,00
Baratxuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-



Tantoko 10 eurotan, pujatzaileak adi egon ziren. IÑIGO TERRADILLOS

## iragarki laburrak ▶

**Telefonistak.** Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko

Jauriaritza. 943 65 01 93 telefonoa.  
**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udalenta Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Plaza libreak: eskolak, Eusko Jauriaritza, Aldunidia.

Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Haur Hezkuntza.** 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udal hauetan:

Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Aitzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.  
**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza

libreak: erakunde publikoak. Informazioa zaituz. 943 65 01 93.  
**Peoiak,** elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.



## Etxeko txikienak xomorroen artean

**TOLOSA** ▶ *Xomorroak (bizitza lorontzian)* izeneko antzerki musikala izan zen atzo ikusgai Tolosako Leidor aretoan. Etxeko txikienek ederki igaro zuten arratsaldea Hankatxok aurkeztutako obra honekin. 150 inguru izan ziren, gaztetxo zein guraso, Roberto Alaia, Portuko Galaia, tangoak abesten dituen kilkerra eta Carla, ama ezin aurkitu dabilen eulitxo jaioberrria eta beste hainbat pertsonaiaren gertakizun xebleak ikustera joan zirenak. I.TERRADILLOS

## Presoen itxialdiarekin bat eginez

**IBARRA** ▶ Hileko azken ostiraletan egin ohi den bezala, kontzentrazioa egin zuten atzo Ibarra. Atzokoak, ordea, esanahi berezia izan zuen, izan ere, herriko hiru preso politikoak itxialdia egiten ari dira egunotan, eta Ibarra sarreran giza-katea egin zuten 90 pertsona inguruk bat egin nahi izan zuten beraiekin. Datorren astean zehar hainbat ekitaldi antolatuko dituzte; horien artean, asteazkenean izango den eta herritarren parte-hartzea eskatu duten batzarra, udaletxean. I. T.

### ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Gazte ugari bildu da egun osoko festan

Ametsek bizirik dirautela frogatu zuten partaideek atzokoan

IÑIGO TERRADILLOS

Gazteak izan ziren protagonista atzokoan Alegian egun osoan zehar, izan ere Gazte Eguna ospatu zuten herrian eta jende ugari gerturatu zen ekitaldi desberdinetan parte hartzeko asmoz.

*Paretak bota arren ametsek bizirik diraute* izan da 2005eko Gazte Egunerako Tolosaldeko gazte asanblada eta gaztetxeek aukeratu duten leloa. Amezketako, Alegiako, Anoetako, Ibarrrako eta Villabonako gaztetxeek eta Tolosako Sanblazpikok bat egin dute egun hori antolatzeko. «gazteen arazoei aurre eginez, jai giro egun indartsu bat» igarotzeko helburuarekin.

Goizean goizetik egitarau oparoa izan zuten Alegiara bildutakoek: hasteko, mendi marxta prestatu zuten «AHTK Alegia inguruan kaltetuko dituen

lurretatik zehar». Eguerdian, kafe tertulian bildu ziren gazte talde bakoitzeko kideen esperientziak trukatzeko; hau da, iraganari, orainari eta geroari so egiteko. Arduradunen esanetan, 50 bat lagunek hartu zuten parte tertulian, solasean aritzeko.

Hitz jarioaren ondoren, triki poteoaren txanda izan zen Gaztetxean. Jendea, bertakoa zein inguruko herrietakoa, pixkanaka-pixkanaka hitzordu honetara iristen joan zen bazkardua iritsi aurretik musika giroan egoteko. Jarraian paella jatea egin zuten Gaztetxean

bertan, 80 lagunek, giro polita, lagunartekoa nabari zelarrik.

Eta indarberritu beharra zegoen, arratsaldean gazte joko herrikoiak prestatu baitzituzten. Jolas egin eta gero manifestazioan bildu ziren *Paretak bota arren ametsek bizirik diraute* lelopean, 18/98 auziko auzipetuei atxikimendua adieraziz.

Gauean, berriz, musika izan zen nagusi; Get real, Izeba Pilarraren ilobak, Jone bakarlarria, Nunbait eta Ezein taldekoek euren musika eskaini zuten Gaztetxeko eszenatokian jendearen gozamenarako.

### iragarki laburrak ▶

<p><b>LANA</b> Etxeko lanak. Legorretarako andre bat behar da etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko. Deitu: 609 16 16 35.</p> <p><b>Sukaldaria eta tabernaria.</b> Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.</p> <p><b>Sukaldaria.</b> Sukaldari bat behar da asteburuetarako. Deitu telefono honetara: 635 700 559.</p>	<p><b>ALOKAIRUAN</b> Garaje itxia. Tolosako lurte auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.</p> <p><b>SALGAI</b> Estetika. Estetikako aparagailuak salgai. Deitu telefono honetara: 660 057 605.</p> <p><b>Txakurra.</b> Yorkshire arrazako txakur bat salgai. Bi hilabetekoa eta arra. 617 80 26 20.</p>
---	--



80 lagun bildu ziren, atzo, Gaztebako bazkarian. I.TERRADILLOS

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA			
FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat) 2004/05			
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Soldadura anguloan elektrodoz	80	2005-02-28	18 - 21
Dokumentu informatikoaren kudeaketa (WORD-ACCESS-EXCEL-POWER POINT)	75	2005-03-07	18 - 21
CNC tornoa programatzea	40	2005-04-04	18 - 21
TALDE-LANEKO harremanak (Enkargatuak-Arduradunak)	40	2005-04-04	18 - 21
Soldadura MIG-MAG beste egoeratan	50	2005-04-04	18 - 21
Prebentzio eta Lan arrikuen Oinarriak	40	2005-04-04	18 - 21
Aire egokituaren instalazio muntaiak	40	2005-04-06	18 - 21
Elektroerosio CNC programatzea	40	2005-04-06	18 - 21
PLC-SIEMENS Automata programatze aurreratua	40	2005-04-06	18 - 21
CAD 2D (AUTOCAD 2005)(oinarrizko maila)	40	2005-04-06	18 - 21
Muntai zentralizatuak (DOMOTIKA)	40	2005-04-06	18 - 21
Lan antolaketa eta kontrola	10	2005-04-06	18 - 21
HIDRAULIKA sistema automatikoak	30	2005-04-11	18 - 21
Oinarriko elektrizitatea	30	2005-04-18	18 - 21
CAD 3D Modelatu eta planoak (UNIGRAPHICS)	30	2005-04-18	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA  
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

**KONTSU TABERNA (OREXA)**  
Ostiral gauetik igande gaua arte asteburuko menua **12€**  
Telf.: 943 68 21 54

**Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 27a, iganda ▶ III. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abastasieta, Adara, Albitzer, Aego, Aliza, Alza, Amecleto, Aneto, Balaran, Belantza, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itzategi, Irua, Irujo, Izaga, Izaga, Lizartza, Orenain, Orma, Tolosa, Villabona, Zizurkil, Zorionak, Zubizarreta, Zubizarreta, Zubizarreta

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

06

hotzena

01

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZEMAKIA (zailentzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Euskal dantza ikastarorako erabakiak hartzeko bilera irekia. Bihar, 19:30ean, Kultur Etxean.

**Berastegi.** Emakumeen eguneko afaria antolatuko dute. Martxoaren 5ean izango da, Kako jatetxean, eta izena emateko 943 68 31 51 edo 943 68 33 38 telefono zenbakietara hots egin behar da, martxoaren 2a baino lehen.

**Gatzelu.** KZgunean tutorearen bisita izango dute, bihar, 09:00etatik 13:00etara.

**Sarean lagundu** izeneko mintegia, berriz, 11:00etatik

12:00etara eskainiko dute bertan.

**Irura.** Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Irurako eta Anoetako udalek xake erakustaldia antolatuko dute helduentzat. Martxoaren 8an egingo dute, Irurako Gazte Alaiak elkarteak, 17:00etatik 19:00etara. Martxoaren 7a arte eman daiteke izena, Anoetako eta Irurako udalekuekin.

**Tolosa.** Gerontologikoaren Plataformak deitutako bilera, hemendik aurrerako ekintzak zehazteko. Bihar, 19:00etan, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Korrika Laguntzaile egiteko txartelak salgai daude

Raku, Elurra eta Laiar tabernetan eta Kopi-bat dendan, 12 eurotan. Pin bat eta txartela jasoko dute laguntzaileek. Euskal Herriko 300 denda baino gehiagotan beharpenak izango dituzte.

**Villabona.** Behar-Zanaren ohiko asanblada orokorra. Lehenengo deialdia 09:30ean, eta bigarrena 10:00etan.

**Zizurkil.** Elizpe jubilatuko elkartearen urteko batzarra, bihar, 17:00etan lehen deialdia, eta 17:30ean bigarrena. Gaiak: lehendakari aukeraketa, urteko kontuen balantzea, aurtengo aktibitateak, aurrekontuaren onarpena eta galderak.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Leitza.** Gaur: Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112; bihar: Gimeno, A. Elbarren kalea, 52. Telefonoa: 112.

**Tolosa.** Gaur: Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48; bihar: Etxebeste, J.M. Gernikako Arborearen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

### HITZALDIA

**Abaltzisketa.** *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak* izeneko hitzaldia antolatuko du Hurkoa elkarteak, adinekoei

zuzenduta. 11:00etan izango da, udaletxean.

### ZINEMA

**Leitza.** *Vias cruzadas.* 19:30ean, zinemaren.

**Tolosa.** *El vuelo del Fenix.* Gaur, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan. Bihar eta etzi (asteartea, Ikuslearen Eguna), 19:30ean eta 22:30ean.

**Villabona.** *El viaje de los Cuellilargos.* Haurrei zuzendutako emanaldia, gaztelehar. 17:00etan, Gurea zinema aretoan. Sarrera: 2,5 euro.

## ZORION AGURRAK ▶



### AUPA ZUEKI!

Eider, Ekaitz, Minde, Iñigo eta Pello.  
Salto eta brinko.  
Zuekin tinko.  
Ibarrako Gaztebea.



### AUPA IÑIGO!

Epaiketen gainetik  
hi ere gazte eta errebeldel!  
Eutsi goiari! Segi.




### URTE ASKOAN

Asier Talabera (Anoeta).  
Zorionak gurasoen eta  
Leireren partetik.



### URTE ASKOAN

Narrea Goñi Garmendia (Alegia).  
Gaur 2 urte. Zorionak ebeko erreginari  
asko maite zaitugunon partetik.



### ZORIONAK

Urte askotarako, aita!  
Eutsi goiari, pilotari.  
Ibarrako bi piperren partez.



### URTE ASKOAN

Ane Nogales Oyarzabal.  
Muxu handi bat. Familia  
guztiaren partez.

# HITZA, zorion agurren

## Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

# tartea

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

## PILOTA PARTIDUAK

aspepelota.com

**Etxaniz - Galarza VI.a**  
**Chafee - Apeztegia**

**Gonzalez - Pascual**  
**Del Rey - Lasa III.a**

**Berraondo - Berna**  
**Baleztea - Auxkin**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**  
**Otsailak 28 astelehena**  
**arratsaldeko 16:30ean**

# matraca

## TXOU!

**SORKUN**  
**MAKALA**  
**OREKA EX**  
**FUN-TSAK**  
**BI AMI**  
**BERTSOLARIAK**  
**BREAK DANTZARIAK**

**LEIOA**  
**CAMPUS**  
**KAPETEGIAN**

**3**  
**30**

**OSTERUA**  
**EN**